



FORMULAZIO ORGANIKOA

5.-KONPOSATU AROMATIKOAK

Hidrokarburo nahiko bereziak dira. Nahiz eta gehiago egon guk bentzenoa eta bere deribatuak bakarrik aztertuko ditugu.

Bentzenoaren egitura hau da:




IZENDATZEKO : **bentzenoa** **kate nagusia baldin bada**,

ordezkatzailen lekutzaileak (beharrezkoak badira) eta atzizkiak jartzen dira eta amaieran **BENTZENO** hitza .

- a) **Ordezkatzaile batekin** :kasu honetan **ez da jartzen lekutzailea** ordezkatzailea beti kate nagusiaren lehenengo karbonoan dagoelako.

Deribatu monoordezkatuak


Ordezkatzailea bentzenoaren sei C atomoetatik edozeinekin lotu daiteke, denak baliokide baitira. Ordezkatzailearen izena, hidrokarburoaren gainean lehentasunik ez badu, *bentzeno* hitzaren aurrean jartzen da.



- b) **Bi Ordezkatzaileekin**

Posizioen arabera **orto-**, **meta-** eta **para-** aurrizkiak erabiltzen dira:

1 eta 2 posizioak **ORTO-** (o-)
1 eta 3 posizioak **META-** (m-)
1 eta 4 posizioak **PARA-** (p-)





BALDINTZA BERDINETAN KARBONOAK ZENBATZEKO ORDEN ALFABETIKOA ERE BAI, JARRAITZEN DA

FORMULAZIO ORGANIKOA



c) Hiru sustituzio edo gehiago

Lekutzaileak erabili behar dira, beti txikienak, baldintza berdinetan orden alfabetikoa erabiliko da katea zenbatzeko. Izendatzeko, beti bezala, orden alfabetikoan.



***ERRADIKAL ALKILIKOA NAHIKO KONPLIKATUA BALDIN BADA**, hobe da kontsideratzea **kate karbonatu lineala nagusi bezala** eta **bentzenoa; berriz, erradikal bezala**. Horretarako, izenean **-FENIL** atzikia erabiliko dugu bentzenoa adierazteko eta izenaren hasieran erradikala delako.

Erradikal Feniloa/Ariloa C_6H_5-R



4-fenil-5-kloropent-2-enoa